

XI. URTEA

33. zenb.

1993 IRAILA - ABENDUA
600 pta. - 28 libera



Kontaktaren lantzea 4. urratsean
EFL irakasle-trebatzaileen input-estiloak
Irakurketa ostean mapa semantikoa erabili norberaren
berbaldia antolatu eta idazteko
"Berriketan" metodoa
J.F. Hamers-ekin elkarrizketan
Ikaslearengan ardazturiko curriculum: printzipio eta
oinarriak

ZUTABE

EUSKALDUNTZE - ALFABETATZEAREN ALDIZKARIA

Xedeak

ZUTABE euskalduntze-alfabetatzearen aldizkaria bi eremu horietan dihardutenei edo horiekin lanbidezko loturarik dutenei zuzendua dago, helduen euskara-irakasleei batipat. Lauhilabetekari honek ama-hizkuntza eta bigarren hizkuntzen irakaskuntzarekin zerikusirik duten zientzi arloak ditu berezko esparru (Psikolinguistika, Linguistika aplikatua, Andragogia/Pedagogia, Soziolinguistika) eta hizkuntzen irakaskuntzan/alfabetatze-gaietan teoria, teknika eta ikerketak ezagutaraztea helburu nagusi. **ZUTABE**k teoria aplikatua eta praktikaren arteko oreka lortu nahi du, arestian aipaturiko zientziak eta klaseko mundua uztartzeko zubi izan, aplikatua baita argitalpenaren orientabidea. Ez da lan makala informazio aberatsa eta nork bere burua hobeto prestatzeko lantresnak eskaintzea eta ideiak elkartrukatzeko eztabaidagune ireki jori eta bizia izatea. Ba, horixe du **ZUTABE**k erronka. Amaitzeko, esan **ZUTABE**ren zuzendaritza ez dela artikuluetan agertzen diren iritzi eta ideien erantzule.

ZUTABEko lankidetzak

ZUTABEk gogo onez hartzen ditu helduen euskalduntze eta alfabetatzearen arazoari behar bezala aurre egiteko lagun dezaketen ekarpenak. Bertara bidalitako lanek, aldizkariaren orientabidea gogoan hartuz, zerikusi handia izan behar dute euskalduntze/alfabetatzegegintzak egunero eta gertutik bizi dituzten gorabeherekin. Helduen euskalduntze- eta alfabetatze-eremuei buruzko ekarpenak nahiago izan arren, aldizkariak ez ditu inondik ere helduez beste gizataldeekin aritzen direnenak baztertzen, baldin eta beste egoera ezberdinetan aritzen direnentzat ere baliagarri eta interesgarriak gertatzen badira.

Lanak taxutzerakoan "Artikulugileentzako irizpideak" izeneko idazkia hartu behar da kontuan. Berau urteroko lehendabiziko alean emango da argitara.

ZUTABEk hemendik dei egiten die euskara-arloan lan egiten duten irakasle, hizkuntz eta hezkuntz teknikari, euskara-arduradun eta unibertsitate-alarreko ikertzaileei, aldizkarian esku har dezaten.

Posta

Editorial-gaien inguruko posta eta harpidetzari buruzkoa honako helbide hauetara igorriko da:

• Editorial-gaiak:

ZUTABE
Reina Regente 2-2.a
20003 Donostia
Tlf. (943)291811

• Harpidetza:

HABE
ZUTABE (Harpidetza)
Foruen pasealekua 1-2.a
20005 Donostia
Tel.: (943) 429120; Fax: (943) 430162

Zuzendaritza

HABEren Glotodidaktika zerbitzua

Koordinazioa

Euskalduntze saila

Zuzendaritza batzordea

Iñaki Aranberri

Lagungarri Pedagogikoen saileko burua

Pello Esnal

Euskalduntze saileko burua

Boni Urkizu

Euskara ataleko burua

Imanol Irizar

HABE Liburutegiko arduraduna

Koordinatzailea

Joanba Bergara

Euskalduntze saila

1993ako prezioak

Ale bakoitza: 600 pta.- 28 libera

Harpidetza: 1850 pta.

Diseinua

Azalak eta atalburuetako ikonoak:

Figueras Design

(Zedro plaza 2, 1. C

20016 - Donostia)

Inprimategia

Flash Composition, S.L.

Ercilla, 11 - 1.º dcha.

48009 - Bilbao

Legezko Gordailua

SS-550/89

© Autonomi Elkargoko Administrazio Orokorra,
HABE.

I.S.S.N. 0212-5714



Ale honetan

Aurkezpena 1

Gela irekia

Koldo Txabarri Kontaketaren lantzea 4. urratsean 3
B. Barandiaran / M. G. Larrinaga / M.K. Agirregabiria Hasi eta kitto 15

Beste iturrietatik

Tim Murphy Barne-ikerketa 19
Tessa Woodward EFL Irakasle-trebatzaileen input-estiloak 23
Tessa Woodward Hitzaldietarako eztabaida-eskalak 29
R. Sinatra / J. Stahl-Gemake / N. Wyche Morgan Irakurketa ostean mapa semantikoa erabili norberaren berbaldia antolatu eta idazteko 32

Egilearen eskutik

Gabriel Aresti Euskaltegiko Didaktika Batzordea "Berriketan" metodoa 43

Solasean

Zutabe J. F. Hamers-ekin elkarriketan 48

Irakasleak mintzo

Zutabe Errepikatu nahi ez duen hori 53

Lourdes Elasegi

Kanpainak

Gipuzkoako Udal Euskaltegiak Eman gogor - Dale fuerte 57

Bestelako lankidetzak

Ventura Salazar García Ikaslearengan ardaztutako curriculum: printzipio eta oinarriak 61

Carmen Rodríguez ECCA, irratiz irakasten. Esperientzia bat 78

Liburuak eta aldizkariak

Eskarne Lopetegi Gerraurreko gizarte-hizkuntzalaritza Euskal Herrian (Joxe Manuel Odriozola) 88

Maria Jesus Espi English in Wales (Nikolas Coupland) 88

Aurkibideak

Aurkibideak: adizkariko 31, 32 eta 33. zenbakiak 90

ZUTABE

EUSKALDUNTZE - ALFABETATZEAREN ALDIZKARIA



HARPIDETZA-ORRIA

Izen-deiturak:

Kalea:

Herria eta PK:

Zenbakia:

Probintzia:

ZUTABE aldizkaria jaso nahi dut etxean. (Urtean ohizko hiru aleak eta ale monografiko bat: 1.850 pezeta.)
Honela ordainduko dut: Kontu korrante bidez:

Bankua edo Aurrezki-Kutxa:

Sukurtsala:

Zenbakia:

ZUTABE aldizkaria
Foruen pasealekua 1, 2.a
20005 DONOSTIA

Helbide honetara bidali behar da:
ZUTABE aldizkaria
Foruen pasealekua 1, 2.a
20005 DONOSTIA



Aurkezpena

Aurtengo azken alea duzu eskuartean, irakurle, sail askok osatua.

- *Gela irekia.* Kontaketa da euskalduntzeko 4. urratsean gehien landu beharreko testu-mota, sail honetako lehenengo artikuluaen egileak dioenez. Baina nola landu? Artikulua, hain zuzen ere, horretarako modu bat jorratzera dago emana. Ikasleak, narrazioak sortzeko gai izan nahi badu, testu narratibo egokici erreparatu beharko die, gogorarazten digu Koldo Txabarrik. Horrela bakarrik jabetuko baita testu-mota horien egituraz eta osagaiez.

Funtsezko zeregina du birpasak ikasprozesuan. Eta askotxo dira horretarako bideak, zer esanik ez. Bigarren artikuluan, hain zuzen, horietako bat azaltzen zaigu.

- *Beste iturrietatik.* Irakaslearen prestakuntza dute aztergai sail honetako lehenengo hiru artikuluek.

Andragogikoa izango bada, irakaslearengan ardaztua behar du izan presaketak. Tim Murphey-ren artikulua horretarako bide bat eskaintzen digu: barne-ikerketa, alegia. Jadantik ezagutzen duena ikustera eramaten du irakaslea barne-ikerketak, gero informazio berriak oro ezaguna duen horretan txertatzeko. Horrela askoz motibariago bihurtzen da edozein gai, zeren eta gaiari buruz pertaide guztiek duten esperientzia aprobetxatzen baita. Ondorioz, beren esperientzia, iritziak eta sentipenak errespetatuak ikusita, irekiago egoten dira besteenak ere kontuan hartzeko.

Antzinatik aitortu zaio *edukiari* (programari) garrantzi berezia irakaslearen prestakuntzan. Baina garrantzizkoa da, era berean, input edo edukiak lantzeko moduei ere behar bezala erreparatzea. Horrexegatik, inkesta txiki bat burutu zuen bigarren artikuluaen egileak EFL irakaslearen trebatzaileek arazo horretaz noraino jabeturik zeuden jakiteko. Inkestak zenbait emaitza harrigarri eman zuen, baita eragin onuragarria izan ere inkestatzailearengan nahiz inkestatuengan. Galdesorta trebatzailearen autokontzientziaketarako tresnatzat eskaintzen da, baita trebatzaileen arteko jarrera-aldaketarako ere. Egileak argibide batzuk ematen ditu aplikatzeko, eta izan lezakeen balioa aztertzen du.

Trebatzaile askok klase magistral edo hitzalditxoak eman nahi izaten dituzte denbora gutxi dutenean edo aurkeztu nahi duten materiala trinkoa edo esperientziatzeko ariketa bidez lantzeko zaila denean. Ez da, ordea, Tessa Woodward-ek hirugarren artikuluan dioenez, derrigorrezkoa horrelako hitzaldietan irakasleak bakarrik hitz egitea, eta trebaketariak entzun, oharrak hartu eta noizbehinka zerbaite esatera mugatzea. Era asko baitago honelako hitzaldi bati bizitasuna emateko aurretik, bitartean eta ondoren.

Nola lagundu ikasleei irakurgai batean dauden edo gero idazlan batean egongo diren ideiak elkarri lotzen? Gai hori jorratuz, irakasleak eman ditzakeen urratsak laburtuko ditu sail honetako azken artikulua. Bertan azaltzen zaigun teknika, berriz, mapa semantikoa edo sare semantikoa deituriko estrategian oinarritua dago.

- *Egilearen eskutik.* Gabriel Aresti Euskaltegiak helduak euskalduntzeko sortu duen “Berriketan” metodoaren berri damaigu sail honetako artikulua.

- *Solasean.* Gurean izan genuen denbora asko ez dela J.F. Hamers psikohizkuntzalaria. Elebitasunaren inguruan aritu izan da beti lanean, elebitasuna ikuspegi psikosozialetik aztertuz. Hori zela eta, haren lana eta zaletasunak eta gure egoera soziolinguistikoz zuen ikuspegia ezagutu nahian, berarekin elkarriketatu ginen.

- *Irakasleak mintzo.* Bigarren urratsa errepikatu nahi ez duen ikaslearen kasua du aztergai oraingoan saileko artikulua.

- *Kanpainak.* 93/94 ikasturterako Gipuzkoako Udal Euskaltegiek eginitako publizitate-kanpainaren inguruko zenbait xehetasun ematen da.

- *Bestelako lankidetzak.* Maiatzak 17an, HIZPEIren Donostiako egoitzan, bi ponentzia aurkeztu ziren, “Bigarren hizkuntzen irakaskuntzarako irakasleen formazioa” deituriko graduondoko ikasketen inguruan. Saio hauek euskara, gaztelania eta ingeleseko adarretan zihardutenei eskaini zitzaizkien, ikasketa-moduloen osagarri eta lagungarri. Ale hone-tan Ventura Salazar irakaslearena aurkituko duzu.

Gaur egungo didaktikaren joera nagusiak eta hizkuntzen irakaskuntzan duten eragina aztertzen dira artikulua honetan, batez ere *atazazko planteamendua* delakoa sortu zenez geroztik. Jakina da ikaskuntzaren garapena neurri handi batean ikasleen behar, interes eta nolakoaren arabera-koa izango dela, eta ikasgelako ikasestiloek ere zerikusia badutela horretan.

Badira hogeitau urte ECCA erakundea irratiz irakasten hasi zela. Saileko bigarren artikulua egileak, hain zuzen, aipatu erakunde horren historia azalduko du, irratir bidezko irakaskuntzaren ezaugarriak aztertuko ditu eta ECCAk ematen dituen ikastaroen berri emango digu.

* * *

Urtero egin ohi den bezala, aldizkariko azken hiru aleen aurkibideak eskaintzen zaizkizu, egileka lehenbizi eta gaika gero, *Aurkibideak* sailean.